

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko urtarrilaren 21a. VIII. urtea. 2.162. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Espainiako Gobernuaren pentsio erreformak kezka ekarri du eskualdera


Sindikatuak greba orokorra deitu dute hilaren 27rako; kapitalismoaren krisia hasi zenetik eskualdeko langileak kalera deitu dituzten hirugarren aldia da

‘Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza’ egunkariak erretiratu, langabetu eta alargun batekin hitz egin du hilaren 28an onartuko duten neurri berriaren inguruan **6-7**

Jokin Ansorena Idazlea

«Fikzioa den arren, nire eguneroko errealitatean oinarritua dago»

Tolosako Udaleko kultur teknikariak ‘Ordu bietan Frontoian’ eleberria idatzi du **3**



I. TERRACILLOS



M. LUGARTEBEDIA

→ San Sebastian eguna ospatu dute eskualdean.

Berastegin, Orendainen, Berrobin eta Leaburun antolatuta dituzte santuaren omenezko ekitaldiak; Orendainen, herriari buruzko liburua idatzi duen Ernesto Gonzalez Castro omendu dute eta Tomas Plazaola alkateak oroigarri bat eman dio **4**



PILAR GOYA
ESTETIKA ZENTROA



Errota 2, behea • Villabona
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamenduak
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xaflak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (irraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarreko argizariarekin

Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteak urteko batzarra du hilaren 25ean

Erredakzioa Alegia

Alegiako Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteak urteko batzar nagusia egiteko zuen hilaren 18an, baina astebetez atzeratu da, eta honenbestez, hilaren 25ean egingo da Alegiako kultur etxean. Lehen deialdia 20:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 21:00etan.

2010. urtean elkarteak izan duen jardunaren balantzea egingo da batzarrean. Hasteko, pasa den urtean egin ziren ekitaldi eta kantu emanaldien berri emango da. 2010. urtean koruaren 50. urteurrena ospatu du elkarteak eta horren balantzea egingo da.

Elkarteko zuzendaritza batzordearen zati bat ere berritu egingo da batzar nagusi horren baitan. Batzarrari amaiera emateko, 2011. urteari begira Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek dituzten aurreikuspenen berri emango da.

Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek urtean zehar egiten dituzten kantu emanaldi eta ekitaldi guztiak kudeatzen ditu kultur elkarteak. Elkarteko bazkide guztiei batzar horretara joateko dei egiten zaie.

Bide batez, elkarteko bazkide egin nahi izanez gero, koruko kideren batekin harremanetan jarri edota kultur etxeko postontzian eskaera uztea besterik ez da egin behar.



Txintzarri abesbatza. E.ARRAYET

Irudia ◦ Lizartza



HAIMAR ALTUNA ETXERA ITZULI DA

Haimar Altuna Lizartzan aurkitzen da. Goizaldeko 05:00ak aldera iritsi zen etxera euskal preso ohia. Bertan, ia sei urte espetxean igarotzen dituen herritarrari lehen harrera egin zioten senide, lagun eta eskualde guztiak gerturatu ziren herritarrak. Aste honen hasieran egin zioten epaiketa Haimar Altunari. Fiskalak zortzi urteko espetxe zi-

gorra eskatzen zuen, defentsa abokatuak aldiz, absoluzioa. Epaiak azken honi eman dio arrazoia eta ondorioz, herenegun aske gelditzen lizartzarra. Senide eta lagunak une horretan, Valdemororako bidean aurkitzen zirenez, Altunak lehen unean taxia hartu behar izan zuen. Denak Bocegillasan elkartu ziren. HITZA

Aralarreko Iratzarrik bere azken kanpaina aurkeztu du Tolosako kultur etxean

«Gazte ezkertze eta abertzaleen ahotsa» transmititu nahi dutela azaldu dute prentsaurrekoan

Asier Imaz Tolosa

Iratzarri gazte erakundeak abian jarri du bere kanpaina berria *Etorbizuneko ezker abertzalea eraikitzen ari gara* lelopean: «Hego Euskal Herri osoan zehar, gazte ezkertze eta abertzaleen mezu desberdinak transmititzeko helburuarekin» azaldu dute. Kanpainaren aldarrikapenak sei puntutan laburbildu zituzten atzo eskaini zuten agerraldian. Iratzarriren ustez, «ezkerreko abertzaleak bakezaleak eta biolentziaren aurkakoak dira»; «erabakitze eskubidearen aldekoak»; «sexu eta genero askapena ere aldarrikatzen du Iratzarri»; «ikasleen borroka beste eredu sozial justu eta solidario baten aldeko borroka» dela uste

dute; «gazteriak, Euskal Herri berde eta iraunkor bat nahi du bere etorkizunean» eta bukatzeko azken puntua etorkin eta emakumeekin du zerikusia: «Nazioarteko elkartasunetik, feminis- motik, arrazismoaren aurkako borrokatatik abiatuta, gure herria denontzako tokia badela aldarrikatu nahi dugu, emakumeen ahotsa ahaztu gabe».

Azken atxiloketak hizpide
Atxiloketak «onarte zintzat» jo ditu Iratzarrik. Horrekin batera, bihar Iruñean egingo den manifestaziora joatea eskatu dute.



Aralar alderdiko Iratzarri gazte erakunde kideak. A. IMAZ


Irudia ◦ Tolosa



UDALBILTZAKO AUZIPETUAK LIBRE

Udalbiltza auziko auzipetuei babesa eskaini zuten herenegun Anoetako eta Tolosako hainbat herritarrek elkarretaratzte berrien bidez. Udalbiltzaren aurkako epaia berriz, atzo arratsaldean jakin zen eta auzipetu guztiak absolbitu zituen Auzitegi

Nazionalako epaiak. Euren aurka 200 urteko espetxe zigorra eskatzen zuen fiskalak, baina Gomez Bermudez buru izan duen epaimahaiaren arabera, ez da frogatu Udalbiltza ETaren proiektu bat denik edo harekin zerikusirik duenik. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



I.T.

Jokin Ansorena ◊ Idazlea

Kultur teknikari baten bizimodua kontatzen duen eleberria idatzi du Jokin Ansorenak; eleberri erromantikoa dela dio, baina, era berean gastronomikoa, historikoa eta politikoa ere bai; lehen eleberria idatzi ostean, «oso sentsazio onekin» geratu da

«Gainditu dudan erronka moduko bat izan da eleberria»

Iñigo Terradillos Kultura

Ordu bietan Frontoian (Alberdania, 2010) eleberria idatzi du Jokin Ansorenak (Donostia, 1963). Donostiara jaiotzez, azken 21 urteak Tolosako Udaleko kultur teknikari bezala aritu da lanean. Hain zuzen ere, kultur teknikari bat da bere eleberriko protagonista, eta neurri batean, Tolosan girotua dagoela esan daiteke. Duela bi hilabete ikusi zuen argia bere lehen eleberria denak, eta «oso gustura» dago herritarren artean izan duen harrerarekin.

Zure estreinako eleberria da, baina ez lehendabiziko liburua, ezta?

18 urte nituela poesia liburutzat egin nuen, *Poemak* (Ustela saila, 1981) izenekoa. Baina orduetik ez dut libururik egin. Hau beste kontu bat dela esan daiteke. Idatzi dudan lehenengo liburu mardula da, lehen eleberria.

Pasa den urteko lanuztea baliatuz zenuen liburua egiteko.

Bai, baina, ez nuen lana horregat

itik utzi, gerora hartu nuen idazteko erabakia. Tarte horretan aukera ugari nituen. Ezer ez egitea zen aukeretako bat, baina zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Eta, azkenean, nik ondoen egiten dudala uste dudana egitea erabaki nuen, hau da, fikziozko zerbait, nobela bat. Horretarako, nire buruari hiru baldintza jarri nizkion: bata, egunero lan egiteko konpromisoa hartzea zen; bigarrena lana hasi eta bukatzea; eta hirugarrena, egiten nuen hori neure buruarekin soilik kontrastatzea. Gainera, oso kondizio egokiak aurkitu ditut lan hau egin behar den bezala egiteko. Hau da, disziplinaz aritu naiz, eta aldi berean, patxadaz. Hori oso inportantea da horrelako zerbait egin ahal izateko.

Autobiografitik zerbait izan dezakeela nabarmena da, protagonista kultur teknikari bat dela kontuan hartuta.

Neurri batean bai. Liburua irakurri duten askok esan didate kost

egiten zaiela ni ez ikustea bertan, nahiz eta protagonistak nire izena ez izan. Hala ere, portzentaierik handiena asmatua da, baina, hori bai, sustraiak eta oinarria neure eguneroko errealtatean ditu. Neure errealtate horretan ere badago beste izen batekin ageri den kosmos txiki bat Tolosa izan daitekeena. Nire bizitzako esperientziak zerikusia izan du

ezinbestean nobela honetan asmatu dudanarekin. Fikzioa da, asmatua da, baina nire errealtatean oinarritua.

Zergatik jarri diozu 'Ordu bietan Frontoian' izenburua?

Behin eta berriro gertatzen da eleberrian hitzordua egiten dela Tolosako Fronton jatez 14:00etan. Nire lagun handia den Roberto Ruizet jatez. Irado-

kigarria iruditu zitzaidan hori izenburu bezala jartzea, jakinmina sor baitezake jendearen artean. Eleberrian, gainera, badaude pertsonaia batzuk euren benetako izenarekin agertzen direnak, eta horietako bat da Roberto. Tolosakoa ez izanagatik erraz eta interesez irakurtzen du jendeak, baina Tolosakoa izanik, be-

«Fikzioa da, asmatua, baina nire eguneroko errealtatean oinarritua dago eleberria»

«Noiz ez dakit, baina ziur bigarrenengo bat izango dela, sentsazio onekin geratu bainaiz»

harrada, errazago irakurtzen da, eta interes handiagoa pizten du.

Eleberria hainbat istorioz osatua dago.

Txirikordatutako istorioak dira. Ez dago istorio bakarra, lau edo bost ardatz daude, guztiak elkarren artean lotuak. Nobela erromantikoa da, gastronomikoa, historikoa, politikoa. Oso erraz irakurri daitekeen liburua da. Horrek ez dio balioa kentzen, bai zik eta erantsi egiten diola uste dut. Jendeak oso erraz irakurri duela esan dit, eta horrek poza ematen dit.

Liburuaren inguruan jasotako iritzia nolakoak izan dira?

Harrera dezentea izaten ari da, beraz gustura nago. Kontentua nago iritsi zaizkidan kritikekin, baina izango dira gustatu ez zaizkionak ere. Egin nahi nuen zerbait zen, eta niretzako erronka moduko bat ere izan dela esan daiteke, eta proba hori gainditu dut.

Lehen esperientzia gaindituta bigarrenaren bila joan behar.

Hori denborak esango du. Nire gaur egungo lan egoerak ez dit aukera handiegirik ematen liburu bat idazteko, denbora libre gutxi geratzen zaidalako. Baina, egia esan, sasoiari sentitzen naiz horrelako beste zerbait egiteko. Noiz ez dakit, baina ziur beste zerbait sortuko dudala. Oso sentsazio onekin geratu naiz nobela honekin, nire buruarekin batez ere.

• tolosa@hitza.info



GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA (Erreferentzia: EE11-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du.

Lanpostua Giza Baliabideak sailan kokatuko da eta, taldeko langileen administrazioari eta Giza Baliabideen kudeaketari lotutako gaiez arduratuko da.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako prestakuntza.
- EGA edo baliokidea den euskara maila.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza, ...).
- Ofimaitika programak erabiltzaile mailan ezagutzea.
- Giza Baliabideen kudeaketarako programa informatikoen ezagutza baloratuko da.

Eskaintzen da:

- Amatasun ordezkapenerako kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehala hastea.

Bidali Curriculum Vitae zehatza, urtarrilaren 28a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

Tenperaturak hotz, baina herriak bizi-bizirik



Golan, Leaburuko dantzariak emanaldia eskaintzen. **Erdian**, Orendainen San Sebastian doinuarekin bandera astintzen. **Behean ezkerretan**, berastegiarrak meza entzuten. **Eta, behean eskuinean**, berrobitarrak mokadutxo bat jaten ermitan. MAIER UGARTEMENDIA

Mezak eta mokadutxoak izan ziren San Sebastian eguneko protagonista eskualdeko herrietan

Maier Ugartemendia

San Sebastian eguna behe lainoa-ekin eta hotz hasi zen, baina pixkana eguzki izpiekin bat, giroa berotzen hasi zen. Berastegiarrak ez zuten hotzaren beldurrik izan eta goizean goiz San Sebastian ermitara gerturatu ziren meza entzutera. Ondoren, giro hotzari aurre egiteko hamaiketako goxoa prestatu zuten kontu kontari zeuden bitartean jan eta edateko.

Orendainen, temperaturak igotzen hasi zirenean hasi zuten festa. 10:45ean abiatu ziren plazatik txistulariekin kalejiran ermitaraino joateko. Bertan meza entzun ondoren, udaletxean hamaiketako eder batez gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Aurtengoan ezusteko polit bat prestatu zuten gainera herritarrek. Udalak omenaldi bat egin nahi izan zion Ernesto Gonzalez, orain dela gutxi Orendainen historia biltzen duen *Orendain, Txindoki eta Oriaren artean* libu-

rua idazteagatik. Alkateak origarri bat eman zion eskerrak emateko. Oso momentu hunkigarria izan zen Gonzalezentzat. Honak eskerrak eman zizkien «herriar guztiei, orendaindarra bezala senti arazteagatik», eta bereziki «emazteari eta Agerre familiarri» beraien laguntzagatik. Historialariak «asebete» sentitzen zela esan zuen, «bere emazteari omenaldi bat» eta «herriari zerbitzu bat» eskaini diolako. Omenaldia amaitu ondoren, urteroko ohiturari jarraituz, herritar batek herriko bandera astindu zuen udaletxean, txistulariek San Sebastianen doinua jotzen zuten bitartean. Jarraian, gosez geratu zirenak Eltxo elkartera joan ziren bazkaltzera. Egun ezin hobea igarotzeko izan zuten Orendaingo herritarrek.

Arratsalderako temperaturak igo ziren, eta berrobitarrak giro goxoagoarekin joan ziren mezatarra. Mokadu bat ere jateko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

Ospakizunekin amaitzeko, Leaburun 17:30ean San Sebastian ermitan bildu ziren meza entzuteko, eta herriko dantzarien dantza saioaz gozatzeko. Egun berezi hau ondo bukatzeko afari-merienda eder batez gozatzeko aukera izan zuten Zazpi Bide elkartean.



saridunak



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareta du

◦ Maritxu Bernabe (Txarama)



Txolarre irriatiak antolatuta **Bertso Jaialdia**

Urtarrilak 22 ◦ Larunbata, 18:00etan Tolosako Leidorren

sarrerak leihatilan bertan



◦ Alkizako Herri Eskola (Alkiza)

HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareta du

LAGUN ARO GBC
Fuenlabrada
saskibalo partida



Urtarrilak 23 ◦ Igandea, 12:30ean Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko GAUR HITZaren bulegotik pasa

Nazabal du izena

Aresoko Herri Eskolari izena jarri diote; ikastetxean abiarazitako egitasmoari udalak onarpena eman dio orain gutxi

Domingo Nazabal Ameriketara joan zen herritarren omenez izendatu dute horrela; irailean egin zuten proposamena irakasleek

Esti Ezeiza Areso

Orain arte Aresoko Herri Eskola bezala ezagutua izan denak, urte berriarekin batera, izen propioa jaso du. Nazabal, hain zuzen ere. Domingo Nazabal Leizagoienaren omenez bataiatu dute gisa honetan.

Ikastetxeko irakasleek irailla aldera luzatu zuten proposamena, eta orduan abiarazi zuten prozesua. Eskolako familia bakoitzari hiru izen iradokitzeko aukera eman zioten.

Ondoren, izen guztien artean bakar bat aukeratu zuten. Honenbestez, urriaren amaieran burututako eskola kontseiluan bozketa egin zuten, eta hiru proposamen aukeratu.

Azkenik, hauen artean boto gehien jaso zituena, Nazabal izan zen.

Aresoko Udalak, jarraipena

Ikastetxean abiarazitako egitasmoari Aresoko Udalak eman zion jarraipena.

Honela, udal ordezkariak azaro amaieran Ez Ohiko Osoko Bilkura burutu zuten eta bertan izen bera onartu: Indianoen etxeak bezala ezagutzen dira, Ameri-

ketara joandako aresoarrek (Domingo Nazabal Leizagoiena eta Domingo Aranalde Nazabal) herrira itzultzean egin zituzten etxeak.

Herri eskolaz gain Palazioa ize-narekin ezagutzen dena, estilo bereko etxea eta Igaldea etxea ere nabarmendu daitezke.

Herriari ekarpen handiak egindako gizona

Aipatu bezala, Domingo Nazabal Leizagoienaren omenez jarri diote izen hau herri eskolari. Hau Ameriketara joan zen gaztetan, eta urte batzuk beranduago Aresora itzuli.

Hala, 1922. urte inguruan, estilo kolonialeko hiru eraikin egin zituen. Horieta bat, egun eskola dagoena da. Domingo Nazabalek hau herriari oparitu zion, baina baldintza batekin, herritarrei zerbitzu bat eskaintzeko erabilia izan zedila.

Halaber, azkenik, ikastetxea kokatu zuten bertan. Nazabalen omenez ere plaka bat dago jarria eraikinaren aurrealdeko partean.

Abenduaren 28ko 823/2010 Ebazpenaren arabera, Nazabal Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa da orain.



Estilo kolonialeko eraikina da Aresoko herri eskola; 1922an izan zen eraikia. HITZA

Haitira eta Boliviara bidali dute Eguberrietan bildutako dirua

Abenduaren 24an etxez-etxe eskean atera ziren haurrak eta gurasoak, bi proiektu lagunduko dituzte

E. Ezeiza Areso

Eguberri hauetan Aresoko haur eta gurasoek, ekarpen berezi bat egin nahi izan diete gutxien dutenei. Izan ere, abenduaren 24an etxez-etxe eskean atera ziren eta denera 413,82 euro bildu zituzten.

Lortutako dirua nagusiki bi proiektu laguntzeko bideratuko dute. Alde batetik, 200 euro, duela urte bat inguru Haitin gertatutako lurrikaran kaltetutako herritarrei laguntzeko, eta bestetik, beste horrenbeste, Boliviako Escuela Robertito egitasmoa bultzatzeko. Honez, gain, sobratzen den diruarekin, merienda egiten dute.



Boliviako Robertito eskola Cerro Ricon dago kokatua. HITZA

Iaz ere, bildutako diruaren zati bat Haitira bidali zuten.

Bestetik, Boliviako Cerro Rico de Potosin, mehatzeetan lan egiten duten familietako 60-70 haurrei, hezkuntza, elikadura, higie-nea eta osasunaren oinarriko beharrak asetzeko bideratuko dute dirua. Izan ere, Voces Libres el-

karteak sustatutako Robertito eskola Cerro Ricon funtzionatzen duen bakarra da. 4.000 metro tara dago kokatua, eta mehatzeetako familietako haurrei laguntzen die.

Laguntza ematearekin batera, haurren mehatzeetako lanen prebentzioan ere egiten dute lan.

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Ekarpena egiteko bideak

50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

- **Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)**
- **Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berrieta.info



iragarkilaburrak.com



berria taldea



Espainiako Gobernuak hilaren 28an pentsioen erreforma onartzen badu, besteak beste, 67 urtera arte atzeratuko dute jubilatzeko adina. E. MAIZ

Pentsio eskubidea jomugan

Espainiako Gobernuak pentsioen erreforma onartu nahi du hilaren 28an; honen aurrean sindikatuek greba orokorra deitu dute

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek egin dute deia hilaren 27rako

E. Maiz-R. Calvo

Euskal Herriko gehiengo sindikalak - ELA, LAB, EHNE, HIRU eta STEE-EILAS- greba orokorra egiteko deia egin du.

Espainiako Gobernuak Lan Erreformaren baitan pentsioen sistemaren aldaketa hilaren 28an burutuko duenez aipatu sindika-

tuek hilaren 27rako deitu dute greba eguna, *Errespetatu langileen eskubideak!* lemapean. Ekonomia krisia lehertuzenetik hirugarren greba orokorra izango da deitu duten hau.

«Kapitala burutzen ari den Ongizate Estatuaren kontrako erasoaldiak ez dauka mugarik. Krisialdiaren aitzakiaz, bankak Eu-

ropak egin behar duena agindu, eta estatu desberdinek men egin dute: lan eskubideak kendu, soldadak murriztu, lan merkatua erreformatu eta gastu publiko eta soziala mugatzen dute...», argitu dute aipatu sindikatuek greba deialdia egiterakoan.

Sindikatuaren hitzetan «azken hamarkada luzeetan egin diren murrizketarik basatienak aplikatzen zaizkio herritarren gehien-goari». Iazko datuen arabera, Euskal Herrian 700.000 pentsiodun inguru daude, horietatik 168.258 lagun Gipuzkoan eta 120.038 lagun Nafarroan. Iazko abenduko datuen arabera, EAeko batz besteko hileko pentsioa 972 eurokoa zen, hau Estatuko ba-

taz besteko altuena izanik. Nafarroan berriz, 886,26 eurotakoa zen.

«PSOE-PSE, EAJ eta UPN errudun»

«Botere ekonomikoak eskatu eta botore politikoak gauzatu duen lapurretara, ika-mika elektoralistetatik haratago, instituzio guztiek, bai Gasteiz eta Iruñekoek bai Madrilekoek, PSOE-PSE, EAJ eta UPN buru direla ere, jarraitu beharreko bidea konpartitzen dute. Banka eta enpresa handiekin aliaturik daude euren poltsikoak betetzen jarraitzeko, langile klasea gero eta gehiago estuturik», diote langileak grebara deitu dituzten indar sindikalek.

Izan ere, Espainiako Gobernuak Lan Erreformaren baitan egin nahi duen pentsioen erreformak aldaketa ugari ekarriko ditu langileen pentsioen baldintzetan.

Sindikatuak hala eta guztiz ere, neurri berri hauen inguruko informazio gehiegirik ez dutela salatu dute eta beraz, honen ondorio errealek ezagutzeko aukerarik ez dutela esan dute eta estimazioak besterik ezin dituztela egin argitu.

Aldatu nahi dituzten neurriak

Erreforma onartuz gero erretiro adina 67 urtera atzeratuko litzateke. Egun 65 urtetan ezarria dago. «Espainiako Gobernuaren proposamena legezko eta derrigorrez-

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

ko adina 67 urtera zabaltzea da. Neurri honek zenbateko guztia-
ren %10eko murrizketa suposatuko du», diote sindikatuek.

Pentsioa izateko beharrezkoak diren kotizazio urteak handituko dituzte. «Egun azken 15 urteen gainean egiten bada, neurri hau hartzeak 20 edo 25 urtera arte igotzea ekar dezake. Pentsio prestazioa kalkulatzeko epea zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta txikiagoa da behin-behinekotasuna na-

Egun 52 urtetan dago gutxieneko adina eta 55 urtera arte igo nahi dute.

Pentsioen izoztea 2011 urterako

Nahiz eta pentsioen erreforma ez onartu dagoeneko zenbat neurri hartuta dituztela ere salatu dute sindikatuek. Batetik, urte honeta-

rako pentsioak izoztu dituzte eta honekin «pertsonek erosteko ahalmenaren murrizketa suposatzen du».

«Hego Euskal Herrian pentsiodunak diren pertsonen erdia pobrezia mugatik behera bizi da. Neurri honen ondorioz pertsona hauek askok aurrera ateratzeko zailtasun handiagoak izango

dituzte, pobreagoak izango dira», zehaztu dute.

Honekin batera pentsioen erosteko ahalmena mantentzea arriskuan dagoela argitu dute grebara deitu duten sindikatuek.

«Egun eroste ahalmenaren mantentzea benetako KPIaren arabera egiten da. Orain zalantzan jartzen da adierazle horren

arabera egin behar den, eta beste-lakoak erabiltzeko aukera aztertzeko da, ondorioz, pentsioen eroste ahalmena arriskuan dagoela esan genezake».

Azken batean, sindikatuen ustez hemendik aurrera erretiroa ez da eskubide bat izango, baizik eta «erosteko merkantzia bat gehiago».

↓ Lekukotasunak

Ekonomia krisia lehertu zenetik hirugarren greba orokorra izango da

Sindikatuaren ustez, erreforma onartuz gero erretiroa ez da eskubide bat izango

gusi den lan merkatuan». Honekin batera, sindikatuek gaur egun pentsio osoa kobratzeko 35 urteak kotizatzea eta 65 urte izatea beharrezkoa dela argitu dute. Erreformaren proposamena pentsio osoa lortzeko adina igotzea da, «derrigorrez beranduago jubilatzea behartzen delarik». «Hemendik aurrera pentsio osoa jasotzea utopia bat izango da, izan ere pentsio osoa kobratu ahal izateko beharrezkoa izango da lan merkatuan 30 urterekin sartzea eta bertatik inoiz ez ateratzea. Egun ez dago gazterik eta are gutxiago emakumerik hau bermatua duenik», gaineratu dute.

Era berean, erretiratutakoan jasotzen den dirua murriztuko dela aurreikusten dute. «%100era iristeko, 38 edo 40 urte kotizaturik izatea nahi dute», diote. Aldez aurretiko erretiroei ere muga jarriko diote erreforma onartuz gero.

Zer iruditzen zaizu Espainiako Gobernuak onartu nahi duen pentsioen erreforma?

Gregorio Artolazabal

65 urte, VOITH-eko erretiratu

«Orain arteko egoera ere ez zen oso ona, baina neurri berri hau indarrean jarriz gero okerrera joko du. Jende guztia bildu behar da, mugitu egin behar gara, bestela langileen egoerak okerrera egingo du. Protesta eginda ere neurria atera egingo dela uste dut nik. Egoerak okerrera egin du etengabe azken urteetan: lehen azken urteko kotizazioarekin jubilatzen zinen, gero azken 8ekin, azken 15ekin... eta orain auskalo: 20, 25...? Oso egoera kaskarrean geratuko gara. Nik ezagutzen dut komertzioan lanean aritutako emakume bat. Bizi guztia lanean eta orain oso egoera kaskarrean geratuko da... Mobilizatu egin behar gara, baina jendeak ez du egiten. Nire inguruan behintzat ez dut ikusten. Jubilatutakoak ez dira gehiegi mugitzen».

Unai Hernaez

30 urte, langabetua

«Azken aldia lan puntualak egiten aritu naiz eta berriz ere, duela hiru astetatik langabezia nago. Erreformari dago-kionean, ez naiz guztiz enteratu zer den egin nahi dutena, baina nahi dutena egiten ari direla garbi dut. Egoeraz aprobetxatzen ari dira eta beraien uestezko «soluzioak» hartzen, baina azken finean, batzuen mesedetan guzti hau sufritzen dugunak langileak gara. Nik 30 urte ditut eta lan tenporalak egiteari utzi eta lan finko batean hasi beharko nuke, onartu nahi duten legearen arabera gero erretiroa eduki nahi badut behintzat. Baina lan puntualik ere ez dut eta ezinezkoa da lan finkoa bilatzea. Gaur egun non dago lan finko bat? Nahita ere gerozkoak ez dituzte egingo baina mobilizazioekin bat egingo dut».

Mikel Balerdi

57 urte, Emusiko langabetua

«Urtebetez ERE-an egon eta gero, jazko irailaren 9an itxi zen enpresa. Orduz geroztik langabezia nago eta lana bilatzen saiatu arren oso zaila dago. Onartu nahi duten erreforma berria oso gaizki iruditzen zait. Ez dakigu ziur zer gertatuko den eta nola gertatuko garen. Zalantza pila bat ditut eta era guztietara ere ziur nago txarra goa izango dela. Pentsioa azken 15 urteen arabera geratzen zen, orain 20-25 era igo nahi dute. 67 urterekin jubilatzean, gazteek non edukiko dute lana? Non geratzen da errelebo kontratua? Egoera oso larria da. Seguru pribatua egitera bultzatu nahi dute. Gazteek nahiz eta arazoak izan lana bilatzeko, bere txarrean hobeto daukate, guk baino errazago. Eta mobilizazioetan dudarik egin gabe parte hartuko dut».

Mari Sol Urdangarin

54 urte, alarguna

«Duela bi urte alargundun nintzen eta kobratzen dudana pentsioa ez da 800 eurora iristen. Bizkarretik gaizki nabil, ebakuntzak eta guzti izan ditut baina lana egitea baino ez zait geratzen aurrera egiteko. Garbiketa lanak egiten ari naiz. Onartu nahi dutena deskalabru bat dela iruditzen zait eta ez ditut garbi beraiek jarri nahi dituzten minimoak zeintzuk diren. Kobratu ahal izateko 15 urtetik 25ra pasa nahi dute eta inor ez da iritsiko pentsio osoa kobratzera. Eta lana murriztua egiten dutenak? Eta nor iristen da 65-67 urtera lana egiteko moduan? Mobilizazioetan parte hartuko dut. Inguruan ere, familia eta lagun artean jende asko dut gaizki eta lanik gabe. Eta zer pasako da paroa bukatzen denean?».

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Astakeren erretiratuak: 15.000ak arte prestakizunariak soilik arduratu behar dira.

RAGARPIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-657695 telefono zenbakia.

IRAGARKIAK

OPORRITAKO ETXERENITZAK

SALBU

Tolosa. Leku indigunetan, altzairu guztia hornituriko apartamentuak salgai. Gasteja eta biderenarekin.

Interesatuak, deitu 667-49 25 57 telefono zenbakia.

Lan iragarkiak

LANEKO LANAK

ETXERENITZAK

ANONETA. Emakume eskualde bat naiz, eta amatsalidez tolosaldean lan egiteko prest nago. Ezozin lan mota egiteko prest nago. Harremanetara jartzeko: 626-714807.

IRAGARKIAK

Vilabona. Ingelerako Marroki erretiratu dia Gopuzkoan maian. Taldela edo bakarka. Mota ezberdinak. Irakurle tituladuna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa

continental56@hotmail.com

LANEKO LANAK

LARREKARDAK

Abeltzaintza. Ingulesa eta alemanara menderatzen dituen pertsonalitate bila

gabiltza telefono arreta zerbitzuaren lan egiteko. Interesatuak deitu: 943-3186 00 telefonora edo bidali komunikulama info@logikakne.com posta elektronikora.

saltzeko, erosteko, alokatzeko, bilatzeko, oparitzeko



tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

euskarako iragarkilaburren ataria

Interneten

iragarki guztiak doan

Paperean

ostiralean atal honetan doan

saldu eta erretiratu orain ez beste iragarki guztiak

suberestu papereko edizioa ere iragarria sartutakoan

Iragarkien prezioak:

Aste bat 5€ / bi aste 9€ / hiru aste 12€ / bost aste 17€

www.inmosalbide.com

SALBIDE

Higiezin zerbitzuak

Aia. Erakuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onen. 28.500.000 pezeta.

Getaria. Herronietara kalean. 3 logela eta 2 bainugela etxebizitza. Trazelakarekin. Egons orain. 41.000.000 pezeta.

Zarautz. Landako plaza. 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berria. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta azotea. Terraza handi hegoaldekoa. Boto edorrak. 50.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Batasun kalera, 6 • 20900 Zarautz
Tel.: 943.21.07.00 • Fax: 445. 71.85.96



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818. tolosa@iragari.net
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** EHNE sindikatuk dozenaka traktore aterako ditu N-1 errepidera gaur «nekazari-tzaren eta abeltzaintzaren egoera tamalgarria erakusteko». Beasaindik Donostiara joango dira Tolosa eta Villabonan geldialdiak eginez.
- **Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiko matrikulazio epea astelehenean, hilak 24, zabalduko dute eta hilaren 28a bitarte egongo da zabalik. Eskolak hilaren 31n hasiko dira. Matrikula egiteko euskaltegira bertara jo behar da (09:00-13:00 eta 16:00-18:00). Informazio gehiago eskuratzeko: 943 65 10 06 edo 943 65 23 43.
- **Tolosa.** 2011 urte honetan San Bernardo Eskaut Gia taldeak 50 urte betetzen ditu. Hori dela eta

aurtengo Inauterietako Astele-nitako konpartsa berezia izatea nahi dute, 50 urte hauetan taldetik pasa diren guztiei bertan parte hartzeko gonbite berezia luzatuz. Izena emateko azken eguna gaur izango da eta horretarako bi bide daude, 652 76 90 59 telefono zenbakira deitzea edota sanbernardo.ihauteriak@gmail.com helbidera idaztea.

■ **Beterri.** Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa gaur Andoaingo Ontza elkarrean 20:30etik aurrera. Txartelak telefonoz ere eskatu daitezke, aurretik ordainduz gero 943 30 07 33ra deituta.

ZINEMA

■ **Villabona.** Gurea aretoan bihar 19:30ean eta 22:15ean *En-*

tre Lobos ikusteko aukera izango da. Igandean, aldiz, 16:30ean *Los Viajes de Gulliver* proiektuko dute eta 19:30ean *Entre Lobos*. Astelehenean ere azken filma hau ikusteko aukera izango da 21:30ean.

KIROLA

- **Zizurkil.** Gaur 18:30etik aurrera 2. urteko alebinen eta infantilen pilota partidak eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketaren baitan: Ziotza-Txapagain 2 eta Ziotza 1-Intxurre 2.
- **Alegia.** Gaur 19:00etatik aurrera alebinen eta infantilen pilota partidak eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketaren baitan honako hurrenkeran: Intxurre 1- Aniztasuna, Intxurre 1-Aurrera Saiaz 3, Intxurre 4-Ziotza 2, Intxurre 3-Aurrera Saiaz 1.
- **Ikaztegieta.** Gaur 19:30etik aurrera jubenilen lehen mailako eta nagusien hirugarren maila-

ko pilota partidak: lehenengo Intxurre 2-Añoza 2 eta ondoren, Intxurre-Lapke.

■ **Villabona.** Gaur 19:30etik aurrera Behar Zana frontoian Gipuzkoako Ezker Hormako Joko Garbi Txapelketako nagusien partidak: Behar Zana 2-Zubieta, Behar Zana 2-Zubieta 2 eta Behar Zana 1-Txost.

■ **Tolosa.** Bihar Usabalgo goiko kantxan 09:00etan saskibaloia: TAKE Montesku-Hondarri-bi eta 10:30ean TAKE Urkizubera Bera. 16:00etan eskubaloia: Tolosa-Elgoibar eta 17:45ean Tolosa-Aloña Mendi. Beheko kantxan aldiz, areto futboleko bi partida izango dira: 16:00etan Laskorain-Lazkao eta 18:00etan Laskorain-Azpetia. Futbol zelaian aldiz, 10:00etan Tolosa CF-Danena, 15:30ean Tolosa CF-Zestoa, eta 17:30ean Tolosa CF-Arizmendi. Etzi 12:00etan Tolosa CF-Real Union.

■ **Irura.** Bihar Irurako Ametsa trinketean 09:15etik aurrera Gipuzkoako Trinkete Txapelketako eskuz banakako kadeteen eta nagusien 2. mailako pilota partidak: Oiarpe 1-Urnieta 1, Urnieta 4-Oiarpe 2, Intza 1-Oiarpe 3, Intza 4-Oiarpe 4, Loliolatarra 3-Usurbil 1 eta Oiarpe 1-Usurbil 2. 15:00etan ere eskuz banakako lehen eta bigarren mailakoen partidak izango dira: Oiarpe 3-Igeldo 1, Hernani 1-Mundarro 2, Usurbil 1-Usurbil 2 eta Behar Zana 1- Behar Zana 2.

■ **Ibarra.** Bihar 16:00etan Gipuzkoako eskuz binakako infantilen pilota partida: Aniztasuna-Txapagain 1.

■ **Tolosa.** Bihar 16:00etan Beotibarren Gipuzkoako zesta puntako Txapelketako alebinen partida: Beotibar-Zumaia 3.

■ **Tolosa.** Ero-Etxe elkartearen krosa igandean. 11:30ean hasiko dira lasterketak eta azken itzulia 12:35ean egingo dute.

Agurrak



Zorionak!

Lorena Elola Leo, 10 urte.
Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Urte askoan!

Mikaela Zabala Goñi (Txarama).
Gaur 89 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Urte askoan!

Aiur Navas Igartua (Gaztelu).
Bihar urtebete. Zorionak, aitona, amona eta familia guztiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gerni-

- kako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZI

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Azpizoz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

www.euskalherriko.plaza.com

**harpidedunentzako
ESKAINNTZA BEREZIA**

HITZA edo BERRIaren harpidedun bazara moztu eta erabili beheko kupoia

MIDAS DONOSTIA-IRUÑEA
Autoaren mantenurako zerbitzuak
Gran Via, 30 (Gros) / Donostia / 943-27 51 91
Zaragoza etorb. 49 / Iruñea / 948-24 56 98
Nafarroa etorb. 2-g / San Jorge auzoa / Iruñea
948-19 95 01

Autoaren mantenurako zerbitzuetan 20 € merkeago*

ETXI-AGENDAK
HARPIDEDUN KODEA
ERABILUNTZA EGUNA

20 euro merkeago! *

ARGITARATZE EGUNA: 2011-01-21
ERABILUNTZA EGUNA: 2011

*Kupoia hau erabili behar da. Deskontu hau aplikagarria izango da fakturaren %50 gaineratzen ez diren bitartean.